

ANDREI

19 urte

"Desio zenuena erosten duzu, hartzen duzu eskuetan eta usteltzen da momentuan. Zertarako erosi dut nik hau?"

MAIALEN

22 urte

"Egunero jasotzen ditugu zerbait kontsumitzeko mezuak. Super basatia da ze zaurgarriak eta ze manipulagarriak garen!"

DESI SI RA

ANER

19 urte

"Desira ez hain normatiboa praktikan jarri nahi dudanean ere, kostatzen zait ulertzea hori nire barrukoa den edo kontra egitetik sortua"

BEGOÑA

20 urte

"Saiatzen naiz izaten super alternatiboa, baina badaramat txikitatik jarraitzen kanon estetiko bat"

ILARGI

21 urte

"Sistema oso bat dago sexu desira normatiboaren inguruan eraikita"



GERUZAK

Desiraren gaiak zer galdera
sortzen dizkizu zuri?

Zer hitzekin
erlazioatuko
zenuke?

Kolektiboa

ASKATASUNA

Nahi bizia

Debekua

Gorputza

POZA

Ezintasuna

Arrazoia

Nahia

Lotsa

Barrukoa

Paradoxa

Errepresioa

Itzali

Kanpoko

Bizitza

ARAU

Indibiduala

Asegaitza

Bultzada

Morrontza

Tripak

Anitza

Gogobetetzea

Gogoa

Tristura

Piztu

Gabezia

Zer da
DESIRA
zuretzat?

Desira garrantzitsua al da
zure egunerokoan, zure
bizitzan?

"Nik nahi
dudalako"
esaldiaren atzean
zer egon liteke?
Esaldi horrek
zerbait positiboa
ala negatiboa
eragiten dizu?

Zer desira izan
duzu eta bete? Eta
bete eta gero zer
sentitu duzu?

Desira morrontza bat
izan liteke ala bizirik
egotea bera da?

Zer gairekin
erlazioatzen duzu?

Zein da zure desioa? Zeintzuk dira
zure desioak? Egin zerrenda bat.

Norbaitek "nik
nahi dudalako"
esaten dizunean
ze eragiten
dizu? Eta
zuk norbaiti
"nik nahi
dudalako" esaten
dizunean?

Desirak berezkoak edo eraikiak dira?
Ala berezkoak eta eraikiak?

BEREZKOAK	ERAIKIAK	BEREZKOAK ETA ERAIKIAK

Zure amona-
aitonek desio
zutena eta zuk
desio duzuna
berdina al da?
Haiek baino
gehiago ala
gutxiago desio
dugu?

Garrantzitsua al da zuretzat zure
desirak berezkoak ala eraikiak
diren jakitea? Ala ez zaizu axola?.

Hautatu
egiten al
ditugu gure
desioak ala
nahi gabe
ikasten
ditugu?

Gure
DESIRAK
berezkoak
ala eraikiak?

Egungo
Amazoniako
tribu batean bizi
den gazte batek
zuk bezala desio
ote du?

Zerk pizten edota
eragiten du gure desioa?
Eman adibide batzuk.

“ Gu oso animalia
imitatzaileak gara.
Eta desira ere
besteen bitartez
ikasten dugu. Askotan
bakarrik desira
dezakegu sumatzen
duguna besteek ere
desiratzen dutela edo
desira dezaketela.

Zuri ere
horrela dela
iruditzen
al zaizu?
Zergatik?

DESIRAK kontsumo gai?


Kontsumitzera
bultzatzen zaituzten
mezuz inguratuta
bizi zarela esango al
zenuke?

Bizi garen
kontsumo gizarteak
zer desira eragiten
dizkigu? Zer desiotara
bideratzen gaituztela
uste duzu?

Zaurgarria eta
manipulagarria zarela
uste al duzu maila
horretan?

Gaurko egunean zehar
jaso al duzu zerbait
kontsumitzeko gogoia
piztu dizun mezurik?
Adibidez?

Gertatu al zaizu
inoiz zerbait
gehiegi pentsatu
gabe erosi, uste
zenuelako benetan
nahi zenuela,
eta ondoren
zure buruarekin
haserretu ez
zenuelako ez
behar, ez nahi?



Desioen kontsumo hori gauza materialena
bakarrik al da? Edo baita esperientziarena
ere? Adibiderik ematerik bai?

Eta harremanena?
Harremanak ere
kontsumitu egiten al
ditugu?

ZER SENTIARAZTEN DIZU HORREK?

**Zein
kasutan?**

**Ba al du horrek
ondorio sozialik?**

Gure DESIRAK indibidualak ala kolektiboak dira?

“

Agian pentsatu behar
genuke indibiduala
den desirarik ba
ote dagoen. Desirak
beti konektatzen
gaitu beste
zerbaitekin, beste
pertsona batekin.

Zuri ere
horrela dela
iruditzen al
zaizu?

Gure desira
antzekoak
dituztenekin
erosoago,
gusturago
egoten al gara?

Bizi zaren kolektiboak edo parte hartzen
duzun talde desberdinek zer desira piztu eta
elikatzen dizkizute eta zein itzaldu?

KOLEKTIBOA	PIZTU	ITZALI



MUGIKOR ZEIN ESTETIKA JAKIN BAT
OINETAKO PARE ZEHATZ BAT
OPOR, KONTSUMO
ETA BIZIMODU-EREDU BAT
HIZKUNTZA HAUTU BAT ...

Zerbait
desiratzea eta hori
asebetetzea eskubide
bat izan liteke? Zein
kasutan bai eta zein
kasutan ez?

Desio libreak dira edo bizi
dugun gizartean nagusi
diren joerek bihurtzen dute
desiragarri?

Gure desira batzuk baztertu egin behar izaten al ditugu?

Eta gure desira batzuk ukatu?

Genero rolen desirak eraikiak direla uste al duzu? Zein adibidez?

Zure DESIRAK arauak al ditu?

Elkarren kontraesanean dauden desirak ba al dituzu? Eman pare bat adibide.

Desira sexuala norekiko eta nola sentitu berezkoa dugu edo bizi dugun gizarteak eta gizarteak esleitzen digun rolak esaten digu nor eta nola desiratu?

Bizi dugun gizarteak bizi-eredu, bizi-estilo batzuk desiratzera eta beste batzuk baztertzera al garamatza?

Gizarte honetan desira batzuk ukatuak al dira?

Desira ukatuak edota ez-normatiboak aldarrikatu beharra dagoela pentsatzen al duzu? Sentitzen al duzu zuk behar hori?

Desira ukaturik edota ez-normatiborik ba al duzu zuk?

Aldarrikatzen al dituzu zure egunerokoan?

Desira normatiboak aurre egiten al diezu? Zeri, noiz, nola, norekin?

DESIRA	NOIZ	NOLA	NOREKIN

Gure rolak eta gure desirak arrazionalizatzen, deseraikitzen, politizatzen al ditugu?

Zure desirek zure buruarekin eta ingurukoekin ondo sentiarazten zaituzte? Ala etengabeko barne gatazka sortzen dizute?


Zure desiraren baten alde egin al duzu zure ingurukoekin debeku edo ezarpenen kontra?

Zer desira kolektibotan identifikatzen zara?



DESIRA eta KOMUNITATEA gatazka ala onura?

Zein desira dira zure ustez guri eta gure komunitateari on egiten diotenak? Eta zeintzuk kalte? Eman bakoitzetik bi adibide.



Zure zein desiok uste duzu egiten zaituztela askeago, justuago, irekiago, solidarioago? Eman hiru adibide.

-
-
-

Eta zein desiok zapaltzaileago, injustuago, lotuago, insolidarioago? Eman hiru adibide.

-
-
-

Gure desirak antolatu ditzakegu? Helburu kolektiboen arabera bideratu?

Eta desira
sexualaren edo
plazeraren kontua,
ZER?

Desira
sexu-
afektiboetan
espektatiba
handiak al
ditugu?
Handiegiak?



Plazer iturri
edo frustrazio
iturri da?

HITZ EGITEN AL
DUGU GAI HONEN
INGURUAN?

Zer da
garrantzitsuago
NIRE DESIRA
ala **ZURE**
DESIRA?




Eta espektatiba
horiek eraikiak
direla esango al
zenuke?

Harremanetan:
nire desira ala
zure desira?

ERRAZA
AL DA
UZTARKETA?

Non
daude
mugak?



Zer DESIO diozu
zure buruari?
Eta zure
ingurukoei?

“

Nik desio dut nire
ingurukoei ez
dezepzionatzea,
laguntzea, indarrak
ematea, borrokatzea gure
herriaren alde, bikote
kide bat aurkitzea edo...
baina batik bat nire
bihotza haiei ahalik eta
gehien irekitzea, eta
erakustea zenbat maite
ditudan.

“

Jartzen naizenean
pentsatzen zer desio
dudan niretzako edo
nire ingurukoentzako
konturatzen naiz
etortzen zaizkidala
burura; jakin-mina,
bizipoza mantentzea,
hazteko gogo...
Igual ez dira gazteongan
oso plazara ekartzen
diren gaiak, baina uste
dut funtsean bizitzan
zehar mantentzea
politen izan daitezkeen
sentipenak direla.

Eta zuk zer
desio diozu
zure buruari?

Eta zure
ingurukoei?

Idatzi eta nahi baduzu, ondoren,
partekatu zure ingurukoekin.